

## Pórtico

---

Las investigaciones que se publican en este número del *Anuario de Eusko-Folklore* forman parte de un plan más extenso: la elaboración del Atlas Etnográfico de Vasconia. No es un proyecto de investigación nuevo; lo formuló José Miguel de Barandiaran hace cuarenta años como complemento de la Cátedra de Etnología que regentaba por entonces en la Universidad de Navarra.

Un proyecto tan ambicioso requería una metodología realista y bien perfilada que permitiera aglutinar todos los frutos obtenidos en las investigaciones de campo; junto a esto hacía falta también seguir una estrategia que trascendiera las dedicaciones puntuales de corto recorrido.

Creemos que ambos requerimientos se cumplen en este caso. Los colaboradores de este número del *Anuario de Eusko-Folklore* vienen investigando en sus respectivas localidades, de un modo continuado, desde hace muchos años; los temas que aquí aportan son capítulos de monografías etnográficas locales que en su día llegarán a completarlas. De estas investigaciones sistemáticas y continuadas se nutre la elaboración del Atlas Etnográfico.

Tal como la concebimos, la etnografía no tiene como objetivo buscar hechos insólitos sino, mas bien, registrar los hechos comunes y consuetudinarios que observamos en nuestro entorno de vida. Tampoco intenta hallar la razón de ser de tales hechos culturales más allá del testimonio y de la interpretación que aportan los mismos informantes. No pretende invadir el ámbito de otras disciplinas humanísticas pero puede aportar a éstas datos fiables para su ulterior estudio.

A raíz de la publicación de los sucesivos volúmenes del Atlas Etnográfico hemos podido constatar el interés que sus temas han despertado en estudiosos de otras disciplinas; la arqueología medieval (ermitas), la educación lúdica (juegos infantiles), la nutrición humana (alimentación doméstica), la renovación de antiguos oficios (ganadería y pastoreo), la historia de la vida cotidiana (ritos de pasaje), entre otros.

Cierra este número el recuerdo de dos personas vinculadas de distinta manera a este proyecto y que fallecieron en este año 2008: Pilar de Barandiaran, sobrina de nuestro maestro D. José Miguel y Hendrike Knörr que en sus inicios fue miembro de Etniker-Álava.

Ander Manterola

# Ataria

---

*Eusko-Folklorearen Urtekari* honetan argitaratzen diren ikerketak plan zabala-go baten parte dira: Euskal Herriko Atlas Etnografikoa egiteko lanaren parte, alegia. Ez da ikerketa proiektu berria; Jose Migel Barandiaranek formulatu zuen duela berrogei urte, garai hartan Nafarroako Unibertsitatean zeukan Etnologia Kate-draren osagarri gisa.

Hain proiektu handinahiak metodologia errealista eta ondo zehaztua behar zuen, landa-ikerketetan lortutako emaitza guztiak bildu ahal izateko; horrekin batera, ibilbide laburreko ekitaldi intermitenteen gainera egongo zen estrategia bat ere jarraitu behar zen.

Gure ustez, kasu honetan baldintza biak betetzen dira. *Eusko-Folklorearen Urtekari*ko zenbaki honen kolaboratzaileek urteak daramatzate euren herrietan modu jarraituan ikertzen; hona ekarri dituzten gaiak tokiko etnografiari buruzko monografia baten atalak dira, eta, egunen batean, guztiz osatuko dute lan hori. Ikerketa sistematiko eta jarraitu horietatik elikatzen da Atlas Etnografikoa.

Etnografiaren helburua ez da guretzat gertakari harrigarriak bilatzea, ezpada gure bizi-esparruan ikusten ditugun gertakari arrunt eta ohiturazkoen berri ematea. Bere helburua ez da, era berean, gertakari kultural horien izatearen arrazoa aurkitzea, informatzaileek ematen duten testigantzatik eta interpretaziotik harago. Bere asmoa ez da zenbait diziplina humanistikoren esparrua inbaditzea, baina diziplina horiei datu fidagarriak eman diezazkieke, ondoren datuok ikertu ditzaten.

Atlas Etnografikoaren liburukiak argitaratu ostean, konturatu gara bertan jasotzen diren gaiak interes handia pizten dutela beste diziplina batzuetako ikerlarien artean: erdi aroko arkeologia (ermitak), hezkuntza ludikoa (umeen jokoak), giza nutrizioa (etxeko elikadura), antzinako lanbideen berrikuntza (abeltzaintza eta artzaintza) edo eguneroko bizitzaren historia (igarobide-errituak) dira diziplina horietako batzuk.

Zenbaki honi amaiera emateko, proiektu honekin nolabaiteko harremana izan duten eta 2008an hil diren pertsonekin gogoratu gara: Pilar Barandiaran, gure maisu izandako On Jose Migelen iloba; eta Hendrike Knörr, zeina, hasieran, Etniker-Araba taldeko kidea izan baitzen.

Ander Manterola